# Seminario sobre la investigación-acción en derechos humanos: perspectivas feministas y metodológicas ante procesos de memoria, justicia y reparación

## Presentación y objetivos

Este seminario se enmarca en la línea de investigación sobre conflictos, desarrollo y paz que el Instituto Hegoa viene impulsando desde hace años. Una parte del trabajo se ha centrado en el estudio de los conflictos armados y de los procesos de construcción de paz y de rehabilitación posbélica desde varias dimensiones (psicosocial, comunitaria, de género...), y más recientemente en la justicia transicional como aspecto integral de los esfuerzos de construcción de paz, donde demandas como la verdad, la justicia y la reparación son irrenunciables.

Por su propio contenido y por los contextos en los que se desarrolla, de violencia armada pasada y presente, este tipo de investigación presenta desafíos metodológicos y también éticos que no siempre son abordados en espacios de formación y reflexión conjunta. Al mismo tiempo, existe un claro déficit en el estudio y en la elaboración de políticas de memoria, justicia y reparación que tengan en cuenta el análisis de género, a pesar de las contribuciones en este sentido de la investigación feminista. Por ello, los objetivos de este seminario son:

- Debatir cuestiones éticas y metodológicas de la investigación-acción en situaciones de violencia y de graves violaciones a los derechos humanos.
- Conocer los enfoques teóricos y aproximaciones metodológicas de la investigación feminista aplicada a procesos de memoria, justicia y reparación.

## Programa

| | |
|---|---|
| 9.15 | Bienvenida y presentación |
| | PARTE I. **Investigación-acción feminista aplicada a procesos de justicia, reparación y memoria** |
| 9.45-11.00 | La investigación acción participativa feminista y su potencial transformador en contextos de guerra y posguerra. *Brinton Lykes* |
| 11.00-12.15 | La investigación sobre procesos de justicia transicional desde la perspectiva de género. *Gaby Oré Aguilar* |
| 12.15-12.45 | Descanso |
| 12.45-14.00 | Políticas de reparación para una justicia de género: enfoques conceptuales y prácticas. *Julie Guillerot* |
| 14.00-15.30 | Comida |
| | PARTE II. **Desafíos éticos y metodológicos en la investigación-acción en contextos de graves violaciones a los derechos humanos** |
| 15.30-16.45 | Aspectos metodológicos en procesos de memoria colectiva y en la elaboración de peritajes en casos de violaciones a los derechos humanos. *Carlos Martín Beristain* |
| 16.45-18.00 | La participación de las víctimas: De la extracción de información a la coproducción del conocimiento. *Jenny Pearce* |

**Fecha:** 16 de febrero de 2012. **Lugar:** Edificio Basoko Etxea (Sarriko, Bilbao).

**Dirigido a:** Investigadoras/es, activistas de derechos humanos, personal de ONGD, personal técnico de administraciones públicas. El número aproximado de participantes será de 25-30 personas.

**Imprescindible inscripción previa (y confirmación de admisión):** iker.zirion@ehu.es

## Ponentes

**Brinton Lykes,** profesora de psicología comunitaria y directora asociada del Centro para los Derechos Humanos y la Justicia Internacional del Boston College. Está especializada en la investigación de los efectos psicosociales de la violencia y el terrorismo de Estado; los derechos humanos y la salud mental; la investigación-acción-participativa y las estrategias de cambio comunitarias; y los procesos de justicia y reparación desde la praxis feminista, especialmente, en Guatemala.

**Gaby Oré Aguilar,** abogada especializada en legislación internacional de los derechos humanos, y directora de programas del Centro por los Derechos Económicos y Sociales con sede en Madrid y Nueva York. Como investigadora independiente destaca su trabajo sobre los derechos económicos y sociales y las reparaciones legales por los crímenes cometidos contra las mujeres en situaciones de conflicto.

**Julie Guillerot,** abogada, trabajó entre el año 2000 y 2008 como investigadora en la Asociación Pro Derechos Humanos y el Grupo sobre Reparaciones de la Comisión de la Verdad y Reconciliación peruana. Desde el 2002 colabora con el International Center for Transitional Justice (ICTJ), primero como consultora de la Unidad de Reparaciones y la Unidad de Investigaciones y actualmente como asociada local de la Unidad de Medio Oriente y África del Norte.

**Carlos Martín Beristain,** médico y doctor en psicología social, investigador con una larga trayectoria de trabajo en acompañamiento a víctimas y a defensoras/es en casos de violaciones a los derechos humanos, sobre todo en América Latina. Ha sido asesor de varias Comisiones de la Verdad (Perú, Paraguay, Ecuador), coordinador del informe del proyecto REMHI "Guatemala Nunca Más" y perito ante la Corte Interamericana de Derechos Humanos.

**Jenny Pearce,** profesora de política latinoamericana en el Departamento de Estudios de Paz de la Universidad de Bradford y directora del Centro Internacional de Estudios sobre Participación de ese departamento. Está especializada en la investigación sobre la participación comunitaria; la construcción de paz y rehabilitación posbélica en América Latina, especialmente en Guatemala y Colombia; el papel de la violencia como obstáculo en los procesos de democratización; y las metodologías de investigación participativas, el intercambio de conocimientos y el aprendizaje Sur-Norte.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
hegoa — Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia / Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco

Mintegia

# Giza eskubideen esparruko ikerketa-ekintzari buruzko: ikuspegi feministak eta metodologikoak memoria, justizia eta konponketa prozesuen aurrean

## Aurkezpena eta helburuak

Mintegi hau gatazken, garapenaren eta bakearen gaineko ikerketaren esparruan Hegoa Institutua orain dela zenbait urte sustatzen ari den lan-ildoaren baitan sartzen da. Lanaren zati handi batek gatazka armatuen eta bakearen eraikuntzarako eta gerra ondoko birgaikuntzarako prozesuen ikerketa izan du helburu, dimentsio ezberdinetatik helduz (psikosoziala, komunitarioa, generoarena...); halaber, oraintsu, trantsizio-justizia ere ikertu da, bakea eraikitzeko ahaleginetako alderdi integral gisa, non egia, justizia eta konponketa bezalako eskariak lagaezinak baitira.

Duen edukiagatik eta garatzen den testuinguru gatazkatsuengatik, ikerketa mota honek erronka metodologikoak eta etikoak ditu, eta horiek ez dira beti prestakuntza zein hausnarketa bateraturako espazioetan jorratzen. Era berean, gabezia handia dago ikerketa esparru honetan, bai eta genero analisia aintzat hartzen duten memoria, justizia eta konponketa politikak gauzatzean ere, ikerketa feministak egindako ekarpenak gorabehera. Hori dela eta, mintegi honen helburuak honakoak dira:

- Giza eskubideak larri urratzen diren indarkeria egoeretan ikerketa-ekintzaren auzi etiko eta metodologikoak eztabaidatzea.
- Memoria, justizia eta konponketa prozesuei aplikatutako ikerketa feministaren ikuspuntu teorikoak eta hurbilketa metodologikoak ezagutzea.

## Egitaraua

| | |
|---|---|
| 9.15 | Ongietorria eta aurkezpena |
| | I. ZATIA. **Justizia, konponketa eta memoria prozesuei aplikatutako ikuspuntu feministako ikerketa-ekintza** |
| 9.45-11.00 | Ikerketa-ekintza parte-hartzaile feminista eta gerra eta gerraondoko testuinguruetan duen gaitasun eraldatzailea. *Brinton Lykes* |
| 11.00-12.15 | Trantsizio-justizia prozesuen gaineko ikerketa, generoaren ikuspuntutik. *Gaby Oré Aguilar* |
| 12.15-12.45 | Atsedenaldia |
| 12.45-14.00 | Genero-justiziarako konponketa politikak: ikuspuntu kontzeptualak eta praktikak. *Julie Guillerot* |
| 14.00-15.30 | Bazkaria |
| | II. ZATIA. **Erronka etiko eta metodologikoak ikerketa-ekintzan, giza eskubideak larri urratzen diren testuinguruetan** |
| 15.30-16.45 | Alderdi metodologikoak memoria kolektiboko prozesuetan eta adituen txostenetan, giza eskubideak urratzen diren kasuetan. *Carlos Martín Beristain* |
| 16.45-18.00 | Biktimen parte-hartzea: informazioa ateratzetik ezagutzaren ekoizpen bateratura. *Jenny Pearce* |

**Eguna:** 2012ko otsailaren 16a. **Tokia:** Basoko Etxea eraikina (Sarriko, Bilbao).

**Hartzaileak:** Ikerlariak, giza eskubideen aldeko aktibistak, GGKEetako kideak, administrazioetako teknikariak. Parte-hartzaile kopurua, gutxi gorabehera, 25-30 pertsona bitartekoa izango da.

**Ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea (eta onartu izanaren baieztapena):** iker.zirion@ehu.es

## Hizlariak

**Brinton Lykes,** Boston Collegeko Giza Eskubideen eta Nazioarteko Justiziako Zentroko psikologia komunitario-kulturaleko irakaslea eta zuzendari elkartua. Hainbat alorretan espezializatuta dago: Estatu terrorismoaren eta indarkeriaren ondorio psikosozialen ikerketa; giza eskubideak eta buru osasuna; ikerketa-ekintza parte-hartzailea eta aldaketa-estrategia komunitarioak; justizia prozesuak eta konponketa praxis feministatik, batez ere, Guatemalan.

**Gaby Oré Aguilar,** abokatua, giza eskubideen nazioarteko legegintzan aditua, eta Madrilen eta New Yorken egoitza duen Eskubide Ekonomiko eta Sozialen aldeko Zentroko Programen zuzendaria. Ikerlari independente gisa, eskubide ekonomiko eta sozialen gainean egindako lana eta gatazka egoeran dauden emakumeen kontra egindako krimenengatiko lege-konponketak dira aipatzekoak.

**Julie Guillerot,** abokatua, 2000 eta 2008. urteen artean, ikerlari gisa jardun zuen Giza Eskubideen aldeko Elkartean, bai eta Peruko Egiaren eta Adiskidetze Batzordearen Konponketen gaineko Taldean ere. 2002az geroztik, International Center for Transitional Justice (ICTJ) delakoan lan egiten du, lehenengo, Konponketa Unitateko eta Ikerketa Unitateko aholkulari gisa, eta, gaur egun, Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako Unitatearen tokiko elkartu gisa.

**Carlos Martín Beristain,** medikua eta psikologia sozialean doktorea. Eskarmentu handia daukan ikerlaria da, giza eskubideen urraketen kasuetan biktimei eta defendatzaileei laguntzen, batez ere, Latinoamerikan. Aholkulari izan da Egiaren zenbait Batzordetan (Peru, Paraguai, Ekuador), bai eta "Guatemala Nunca Más" REMHI proiektuaren txostenaren koordinatzailea eta Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortean peritua ere.

**Jenny Pearce,** Bradfordeko Unibertsitateko Bake Ikasketen Saileko irakaslea eta sail horretako Nazioarteko Partaidetza Institutuko zuzendaria. Hainbat alorretan da aditua: parte-hartze komunitarioari buruzko ikerketa; bakearen eraikuntza eta gerraondoko birgaitzea Latinoamerikan, batez ere, Guatemalan eta Kolonbian; demokratizazio prozesuetan indarkeriak oztopo gisa duen papera; eta ikerketa-metodologia parte-hartzaileak, ezagutzen trukaketa eta Hegoaldea-Iparraldea ikaskuntza.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
hegoa
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia / Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco